

V - BESTELAKOAK

SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOA

Esparru- akordioa sinatzeko deialdia

1. Erakunde adjudikatzailea: Santa Maria Katedrala Fundazioa

2. Kontratuaren helburua:

A) Helburuaren deskribapena: Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedrala zaharberritzeko lanen adjudikaziodunak kontratatu ondoren bete beharko dituzten baldintzak ezartzeko enpresari bakar batekin esparru- akordioa sinatzeko deialdia. Lanak hauek dira: Santa Maria Katedraleko zaharberritze lanetako edo Santa Maria Katedrala Fundazioaren jabetzan edo erabileran dauden eraikinetako aldamioren muntaketa eta desmuntaketa

B) Iraupena: urtebete

C) Luzapena: urtebete horrela akordatu ez gero.

3. Izapidea, prozedura eta adjudikatzeko era:

A) Izapidea: presakoa

B) Prozedura: Irekia

C) Era:

– Aldamioren muntaketa eta desmuntaketa mota, aldamio sarea, aldamio eskailera eta biseraren prezio moteekiko beherapen orokorreko ehunekoa: 80 puntu arte

– Arduradunaren eta muntatzailearen eskulanaren kostu/orduaren prezio moteekiko beherapen orokorreko ehunekoa: 20 puntu arte

4. Lizitazioaren aurrekontua:

Aurrekontu mota: Estimaturako gehienezkoa, lizitatzailak orientatzeko da eta ez die aurrekontu gastuei inolako konpromisorik eragingo.

Akordioak irauten duen bitartean egiten diren lanek eragindako obligazio ekonomikoak soilik hartuko ditu aintzat Fundazioak.

Halere, Esparru- akordioaren barruan egingo diren lanen bolumena, gutxi gorabehera, 18.000,00 eurokoa (gastu orokorren ehuneko 13a eta mozkin industrialen ehuneko 6a barne) izango da. Horri ehuneko 21ko BEZa gehituko zaio. Ondorioz, Esparru- akordioaren aurrekontuaren oinarria (urtebeteko iraupenarekin eta urtebeteko luzapenarekin horrela akordatu ez gero) 36.000,00 eurokoa izango da eta ehuneko 21ko BEZa gehituko zaio.

5. Bermeak:

Behin behinekoa: ez da eskatzen

Behin betikoa: Esparru- akordioko aurrekontuaren ehuneko 5a (BEZik gabe)

6. Kontratataren berriazko baldintzak

A) Sailkapena: Ez da eskatzen

B) Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa: Ikusi ezaugarrien taulako "O" puntua.

7. Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea:

Fundazioaren administrazio saila

Tokia: Fundazioaren bulegoan, Vitoria- Gasteizko Aiztogile Kaleko 93 zenbakian

Telefonoa eta faxa: 945 12 21 60

Edo Kontratugilearen profila atalean: www.catedralvitoria.com

8. Eskaintzen aurkezpena:

A) Epea: ALHAOn lizitazio- iragarkia argitaratzen denetik kontatzen hasi eta 13 egun naturaleko epea izango da.

Eskaintza postaz aurkezten bada, Administrazio Publikoen Kontratuen Lege Orokorraren Arautegiko 80. Artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

B) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Ikusi ezaugarrien taula eta orri administratiboak eta teknikoak.

C) Aurkezteko tokia: Fundazioaren bulegoan, Vitoria- Gasteizko Aiztogile Kaleko 93 zenbakian, 14: 00ak arte (Larunbatak baliogabeak)

9. Eskaintzak irekitzea:

Proposamenak aurkezteko azken eguna igaro eta lau egun baliodunera irekiko da "A" gutun- azala, 13: 00etan, Santa Maria Katedrala Fundazioaren Bulegoan, aurretik "B" gutun- azala irekiko da.

Vitoria- Gasteizen, 2016ko martxoaren 31n

Presidentea

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE